

DIRU SARRERAK

Gure enpresak sarrerak hiru iturri desberdinetatik jasoko ditu; aktiboen salmenta, harpidetzak eta bidalketa kostuak. Horrekin saltzen dugunaren arabera gure diru sarrerak handitu egingo dira proportzionalki.

- Aktiboen salmenta
 - **“Stock”-a salduz irabaziko** dugu **aktiboen salmentaren** zatia, online salmentak egingo dizkiegu bezeroei, eta haiek zuzen ordainduko digute. Gure produktua **200€** inguruan baloratuta dagoela uste dugu. Izan ere, deritzogu gure produktuak **hainbat arazo konpondu** ditzakeela, batez ere elikadura arazoentzat dituzten pertsonen. Hainbatek pentsa dezakete merkeagoa izan beharko litzatekeela, egon daiteke jendea ezin duena produktua ordaindu, baina erabiliko duen **teknologia oso aurreratua** da eta gainera **inbestigazio handia** egin beharko da garatzeko Guztira **100€**-ko kostuak izango ditu **gailuaren fabrikazioak**. Prezioa finkatzeko ez dugu non konparatu izan, izan ere **ez dago lehiarik merkatu horretan** produktua merkatuan egongo den lehena delako, orduan izango ditugun kostuen arabera hartu dugu erabakia, eta produktuak asetuko dituen beharretan ere. Bezeroek ez digute “cash” moduan ordainduko, dirua bankura bidaltzea nahiago dugu, txartelaren bidez, eta horrela enpresaren banku korrontean izango dirua. Gainera online salduko ditugunez produktuak ezin izango dute **eskudiruarekin** ordaindu. Bezeroek produktua **erosi bezain laster ordainduko** digute, online egiten diren erosketa guztiak moduan eta **ordaindu bezain laster bidaliko** diegu produktua eta ahalik eta epe laburrean heltzea nahi dugu, bezeroak pozik egoteko.
- Harpidetzak
 - Produktua erabiltzeko **aplikazioa beharrezkoa** izango denez horregatik ere kobratu egingo dugu; uste dugu **25€** ordaindu beharko dituela jendeak urtean, **suskripzio** bat, eta horrela produktua erabili dezakete arazorik gabe. Izan ere, gailua soilik ezin izango du funtzionatu eta horretarako aplikazioa beharko du datuak bertan agertzeko.
- Bidalketa kostuak
 - Produktua **etxera bidaltzeagatik 10€** kobratuko ditugu, izan ere, enpresa bati ordaindu beharko diogu produktuak mugitzeko

Hortaz, bezero bakoitzak 235€ (10 bidaltzeagatik, 25 lehen hilabeteagatik, 200 gailuagatik) ordainduko ditu produktua erabiltzen hasteko eta hortik aurrera 25€-ko ordainketa bat egingo dute urtero